

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Enrike Guridi Egaña

*Oñati, Gipuzkoa
(1931-2009)*

Aurkibidea



Biografia



Torreauso -edo San Pedroko-Torreko baserrian jaio zen 1931n. Gurasoak ere bertakoak zituen, biak oñatiarrak. Mojekin ibili zen lehenbizi eskolan, auzoan bertan, eta gerora maristekin, 14 urte ingurura arte. Handik aurrera hainbat lanbide probatu zituen: basoan pinuak botatzen, ikazkintzan, eskopetak egiten eta, amaieran, forjan. "Forjas de Zubillagan" lan egin zuen lehenbizi, baina hura Azkoitira joan zenean, beren kontura ipini zuten lantegia. Hasieran "Gaitu" jarri zioten izena eta geroago "Enara" izena hartu zuen.

Zintak

ONA-041

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-10-23
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ONA-042

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-10-23
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Lanbide asko probatua: basoa, ikazkintza, eskopetagintza eta forja

- **Erref:** ONA-041/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

14 urterekin aitak esan zion lanean hasi behar zuela. Lehenbizi basoan ibili

zen Ezpeletarekin pinuak botatzen. Gero ikazkin lanetan ere aritu zen. Eskopetak egiten ere ibili zen 8 urtez eta Eibarko Aranzabal eta Sarasketarentzat egiten zituzten eskopetak. Handik forjara pasa zen eta "Forjas de Zubillaga"n ibili zen lanean hauek Azkoitira joan ziren arte.

2. "Enara" forjarainoko bidea nola egin zuten

- **Erref:** ONA-041/003
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

"Forjas de Zubillaga" lantegiak Azkoitira alde egin zuenean, euren kontura jarri zuten lantegia. Hasieran Zufiriaren lantegia hartu zuten alkilerrean. Zer nolako lanak egiten zituzten. Geroago Zubillagako forjetara pasa ziren. Hasierako izena "Gaitu" zuten, sozio zirenen izenekin sortua. Baina antzeko izena zuen beste lantegi bat zegoelako "Enara" jarri zioten izena gerora. Gerora "Ulma forja" bihurtu zen.

3. Ulma kooperatibaren hasiera

- **Erref:** ONA-041/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Ulma kooperatiba euren baino lehenagokoa zen. Euren 12. kooperatiba omen zen. Ulma lantegia Kurutzeko etxearen bajuetan hasi omen zen. Handik pabiloia sortu zuten gerora eta azkenean gaur dagoen lekura pasatu zen lantegia.

4. Baserriko bizimodua; umetako lanak

- **Erref:** ONA-041/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Baserrian hiru behi inguru, txerria eta untxiak izaten zituzten. Umetatik lan egin beharra izaten zen, batez ere "ittaurrean". Baratzea eta soroa ere

bazituzten eta denetarik hartzen zen orduan. Inguruetan gari asko hartzen zen lehenago. Torreazoko baserri "fuerteenak" zeintzuk ziren.</p>

Transkripzioa

-Zuek etxian gaurik-eta bazeukein?
-Hemen? Bai. Guk hiru behi. Hiru behi ta beste bi txahal edo hola izaten zittua; beste txarrin bat edo beste...
-Eta ardirik edo?
-Ez, ardirik ez. Beste koneju batzuk, beste oillotxo batzuk...
-Etixerako, ezta?
-Etixerako, bai.
-Umetan lan ein beharko zenduen basarrixan, ez?
-Bai, bihako in! Ittaurren ta. Hotz galantakin hemetik aurrea. Tremendako izotza ta sudurretik dindilixuak.
-Ta hori izaten zan umien lana, ittaurrian...?
-Bai, bai, ittaurrian ittia izaten zan orduan umien lana. Gure bizimodua hola hasi zan.
-Eta orturik eta? Bazekazuen, ortua?
-Orduan? Bai, orduan ortua ta sorua, danak.
-Ta ze itten zan?
-Ortuan? Ba ointxe itten dana, porruak eta azaak eta, tomatiak eta...
-Oin gariik ez da eraitten.
-Oin gariik ez da /ezta/ eraitten. Garixa iñok... Oñatin, apostia eingo ñukek, ez dauela /eztauela/ gazte askok garixa zelakua dan be. Jakin be ez, segurutik. Noiz eraitten zan ta...
-Araban ikusitta.
-Araban ikusitta, "lo único", fan dana. Hemen lehen garixa bastante hartzen zan. Hau, Etxehaundi, [...] dauena? Hori ta Lazarraga, horreik zien hemengo Torreazoko zerik fuertienak, baserririk fuertienak. Hor gari asko hartzen zan.
-Errota nun dakotzue hemen?
-E?
-Errotia?
-Errotia, Garibaiko errotia.
-A, Garibai, karo.
-Eta... Garixa ta artua ta arbixa ta... orduan, ba, orduan ez euan besteik.

5. Gariaren ereitetik errotarainoko bidea

- **Erref:** ONA-041/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia azaroan ereiten zen eta ez zuen lan handirik izaten heldu bitartean. Heldutakoan igitaiarekin ebakitzen zen eta metak egiten ziren. Garia ihartutakoan harri gainean jotzen zen, alea soltatzeko. Gerora, makinak hasi zirenean, lehenbizi matxakan alea soltatu eta haize-errotan alea garbitu ostean arkan gordetzen zen alea. Gazta gari artean sartzen zen arkan, hobeto kontserbatzeko.

6. Torrea baserria Garai lantegiarena zen

- **Erref:** ONA-041/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Torrea baserria Garairena (Garai fabrikakoa) zen. Gabonetan errenta ordaintzera joan behar izaten zuten eta gariarekin eta oilaskoekin ordaintzen zioten. Gerora baserria erosi egin zuten. Garia lantegia aspaldikoa da; lehenago pospoloak egiten omen zituzten.

7. Ezkailutan errekan, Torreko tabernan bazkariak emateko

- **Erref:** ONA-041/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Errekan ezkailutan ibiltzen ziren sarearekin. Torrean taberna izan zutenean Soraluze inguruko jende asko etortzen zen zarbo-ezkailuak jatera. Gazteagotan amuarrainetan ere ibiltzen zen. Lehenago amouarrainak, kangrejoak, aingirak... denetarik izaten zen errekan.

8. Txatarren ordez, bizikleta

- **Erref:** ONA-041/010
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako entretenimendua futbola edo bizikleta izaten ziren. Ur-handiekin txatarra zatiak etortzen ziren errekan; eta, haiek txatar-biltzaileari salduta, trukean bizikleta erosi zuten.

9. Torreauso auzoko baserriak

- **Erref:** ONA-041/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Torreauso ziurrenik Oñatiko auzo txikiena izango omen da lurrez eta jendez. Auzoko baserriak izendatzen ditu. Zazpi baserri dira guztira eta 14 familia bizi dira denera.</p>

Transkripzioa

-Auzua asko aldatu da?

-Bai. Bueno, hau auzo oso txikiña da, e? Oñatiko, seguramente, territorixuan, metro kuadrauetan eta habitantetan txikiñena.

-Ze etxe sartzen dia hemen? Lasa...

-Hemen? Torria bat, Errota bi, Azkonitza hiru, Munazatei lau, Azpikua bost, Elazarra sei, Etxe Haundi zazpi. Horreik baserrixak zienak. Ta gero oin bizi dienak hortik gaiñea, ba, gero Alfontxo, zortzi, Mendi beatzi, bueno, Mendi, bai, [...] beatzi, nere semia hamar, gu hamaika, eta hemen bi, hamahiru. Hamalau bezino. Torreausok ez dako /eztako/ besteik.

-Basarrixetan danetan bizi da jentia ondio?

-Bai, hemetik ez dau... Bueno, ezkondu dienak kanpora ba, bai, baiña bestela...

-Baiña basarri hutsik ez dao...

-Hemen basarriik bapez ya.

-Ez, baiña hutsik, jente barik.

-Ez, ez, ez, ez, daniel. Munazatein be ba lehen bizitza bat zana oin bi, baserrixan bertan in zittuein bi bizitza, anai-arrebak.

-Ta Elazarra?

-Elazarren be "lo mismo".

10. Idiekin errekatik gora igo behar

- **Erref:** ONA-041/014
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxe inguruetan zituzten terreno batzuetara joateko errekatik zehar joan behar izaten zuten idiekin, San Prudentziotik Oñatirako trena ere ingurutik pasatzen zelako eta beste biderik ez zutelako.

11. Felix Aranzabal soinu-jolea Torreausoko jaietan

- **Erref:** ONA-041/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Torreauzoan oso erromeria ona egiten zen. Felix Aranzabal soinu-jolea etortzen zen Eibartik. Bere osaba joan zitzaion bila San Pedroetarako soinu-jolea behar zutela eta.

12. San Pedroak Torreauson

- **Erref:** ONA-041/017
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Pedroak ospatzen ziren Torreauson. San Pedro biharamunean "Txantxilipiztei" (Santxolopetegi) auzokoak etortzen ziren merienda egitera eta gero Madalenetan, hango jaietan, beraiek joaten ziren. Erromeriak amaiera ordua izaten zuen eta Guardia Zibilak egoten ziren ordua zaintzen. Felix "Itsua" soinu-jolearentzat eta Vitoria saxofoijoleentzat eszenatokia beraiek egiten zuten egurra basotik ekarrita. Soinu-jolea bi egunetarako etortzen zen eta bertan geratzen zen lotan.</p>

13. Inguruetako jaiak; San Migelak

- **Erref:** ONA-041/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Jende asko etortzen zen Torreko tabernara. Torreausoko jaiak inportanteak ziren. Zubillagan ere San Pedroak ospatzen ziren. San Migeletan joaten ziren kalera. Herriko musika bandak jotzen zuen orduan eta behin Arabako banda militarra ere etorri zen. Herri-kirolak ia ez zen egoten orduan jaietan.

14. Maristetan lehiaketak, nork galdera gehiago asmatu

- **Erref:** ONA-041/019
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Mezara igandero joan behar izaten ziren. Mojekin ibili ostean maristekin ibili zen eskolan eta seigarren maila egin ostean lanean hasi zen. Eskolan zer ikasten zuten. Gauza gehienak buruz ikasten zituzten. Gelan erdiak erdien

kontra ("romanos" y cartagineses") lehiaketa egiten zuten nork galdera gehiago asmatu. Gaztelaniaz ikasten zuten eta euskaraz hitz eginez gero eraztuna jartzen zieten. Egunaren amaieran eraztuna zuena zigortu egiten zuten.</p>

15. Zañartuko mojak

- **Erref:** ONA-041/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:38:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojetan ikasi zueneko kontuak. Sor Fortunata irakaslea Artajonakoa zen. Beste irakasle batzuk: sor Maria, sor Sofia, sor Carmen. Bera soldadu zegoela, hanka moztu zion sor Carmeni, trenak harrapatu baitzion. Zañartuko mojen ardura eliza zaindu eta eskolak ematea zen. Denak kanpotarrak ziren.

16. "Tiro al plato" a futbol zelaian

- **Erref:** ONA-041/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Familian aurrekoengandik datorkie ehizarako zaletasuna. "Tiro al plato" an ere aritzen ziren. Oñatin futbol zelaian egiten zen, baina beste herri batzuetara (Legazpi, Eibar...) ere joaten ziren. Bere osabak "lanzaplato" deitzen zioten makina zuen eta harekin aritzen ziren futbol zelaian. Ehizara kanpora joaten ziren, eperretara. Orduan ez zeukan edozeinek kotxea eta kotxea zutenekin joaten zen.

17. Motoan Nanclares-era ehizara; Arantzazurako autobusa

- **Erref:** ONA-041/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Herrian nortzuk zuten kotxea garai hartan. Beraiek motoa zuten, "Brio 98". Ze matrikula zuen gogoan du. Anaia eta biak Nanclares-era joaten ziren motoan, bien erdian txakurra hartuta ehizara. Oñatiko autobusak. Arantzazura igotzen ziren autobusak jendez beteta ibiltzen ziren, goi eta behe, eta sarritan beraiei

ekartzen zizkieten frenoen barilak soldeatzeko. Aurretik jendea astoan ibiltzen zen.

18. Aita banastagilea; banastak egiteko prozesua

- **Erref:** ONA-041/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Aita banastagilea zen. Lehenbizi gaztainak ekartzen zituzten basotik eta, ez zitezen lehortu, uretan eduki. Handik labera sartzen zituzten eta han berotzen zirenean zimitzak ateratzen ziren. Kutxila batekin zimitz haiek landu eta gero banastaren forma ematen zitzaion. Bera ere ibiltzen zen aitari laguntzen, batez ere zuloak estaltzen, geratutako zuloak zimitz txikiagoekin estali behar izaten ziren eta.

19. Lehen gaztaina asko

- **Erref:** ONA-041/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztaina galdu egin zen asko basoetan, Enrikeren ustez, pinuaren eraginez. Lehenago gaztaina asko jaten zen. Eurak ere mendira (Olabarira) joaten ziren eta zukukada beteta etortzen ziren. Erreta edo egosita, bietara jaten zuten.

20. Eguneroko jatekoa eta gabonetako

- **Erref:** ONA-041/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Orduan baba eta patata izaten zen eguneroko jatekoa. Babari sartzen zitzaion txerrikiren bat ere. Garbantzua estimatua izaten zen, noizbehinka jaten zuten eta. Gabonetan beti egoten zen zerbait berezia. Ardoa eta pattarra ere Gabonetan bakarrik egoten ziren.

21. Gabon zaharretan "Misa del gallo"

- **Erref:** ONA-041/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gaueko 12etan "Misa del gallo" egoten zen Gabon zaharretan eta jende asko joaten zen. Bera ez zen joaten normalean. Auzoko gazteak ibiltzen ziren gabon-eskean.

22. Torreko taberna ezaguna zarbo-ezkailutan

- **Erref:** ONA-041/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Torrera jende asko etortzen zen zarbo-ezkailuak jatera. Tabernan gertatutako pasadizoa. Erreka osoan ibiltzen ziren arrantzan. Batek zirikatu eta besteak sarearekin harrapatu.

23. Auzolanean egiten ziren lan asko

- **Erref:** ONA-041/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:58:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzolanean lan asko egiten zen lehenago. Gari-jotzen ere etxerik etxe ibiltzen ziren, elkarri lagunduz. Bidegintzan ere auzolanean aritzen ziren. Lehenagoko bideak.

24. Basora garotara

- **Erref:** ONA-041/032
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:20. **Bukatu:** 00:59:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Basora garotara joaten ziren idiekin eta gurdiaekin, sarritan bide txarretatik eta aldapa handietan. Garoa ganaduari azpia egiteko erabiltzen zen. Gero harekin satsa egiten zen eta hura sororako ongarriztat erabiltzen zen. Karea ere erabiltzen zen soroan, lurra harrotzeko.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com